



HISTORIA ETA ARTE INGURUNEA



rege Ordenaren bidez, 1921 urteko abenduaren 21ean izendatu ziren Hondarribiaren alde zaharreko murrak (harresiak), bere atek eta gaztelua Monumentu arkitektoniko-artistikotzat. Hitzez-hitz zioenez: *Las murallas con sus puertas y castillo*. Handik berrogeita bi urtera, alde zahar guzia ingurugune Monumentutzat berretsi zen 1931ko ekainaren 3an. Ikus Kultur Ministeritzak argitaraturiko *Patrimonio Artístico, Archivos y Museos* (1978), 430 orrialdean.

Eta 1964 urteko urtarrilaren 17ko Ordenaz (ikus urte bereko B.O.E. 29 de febrero), Gipuzkoako beste zenbait dorretxe eta jauregiarekin batean, hitzez-hitz zioenaren arabera, Probintziko monumentutzat izendatu ziren Hondarribiako hauek: *casa de Casadevante, casa de Echeveste, casa de Juana la Loca, casa de Zuloaga, casco antiguo de la Ciudad, castillo de Carlos V, castillo de San Telmo, grupo de casa de la calle Pampinot, murallas y sus puertas*. Ikus *Inventario del Patrimonio Artístico y Arqueológico de España* (1975), bigarren argitalpenaren 344. orrialdean.

Alde zaharrari eta gazteluari dagokiona, ulerkaitz egiten zait lehendik Estatu mailako Monumentu zena gero berriz Probintziaren mailako egitea.

Casadevante, Etxebeste eta Zuloaga ongi daude. Baina Juana la Loca deritzan etxea Egiluz da izatez, eta hala ikus daiteke bere armarrarian. Castillo de San Telmo ordea, Felipe IIak eraikia zen Bidasoaren sarrera zaintzeko. Gaur egun, ohituak gaude San Telmo edo Piraten gaztelu bezala izendapenez entzuten. Haindik mendebaldera, ez hain hurbil, mende honetara arte bazen San Telmo ermita eta hortik aldatu zioten jatorrizkoa.

Pampinot kaleko etxeetarik erdiak erortzen utzi ziren eta, zoritxarrez, kale hori berriz ez da izango lehen bezalakoa.

Kale berean Ramery etxeari egin zitzaion behar bezalako berrikuntza, baina zertarakotasun egoki bat falta

zaio. Hondarribiak ez ote du merezi era hortako etxe batean museo bat jartzea? Museoa hornitzeko materialik eta premiarik ez da falta. Alde batetik udatiarrek edo noiznahiko bisitariek zer ikus dezakete eta eskoletako haurrek bertan zer ikas edukiko lukete. Ramery familia, jatorriz Lille-koa ziren, deitura hortakoak 1640 urtetik ezagutzen dira Hondarribian.

Karlos V-aren gaztelutzat jotzen dena ere, zuzenki ez da horrela. Conde de Llobregat-en *Fuenterrabia. Noticias Históricas* (1942) liburuaren 46. orrialdea irakurtzea aski dugu, non esaten duen Nafarroako Santxo Jakitunaren 1194ko asmo hura nola bete zuen bere seme Santxo Azkarrak gaztelu hori eraikiz. Karlos V ak Arma Plaza aldera dagoen aurrekaldea aldatu baizik ez bai zuen egin. Orain zehaztasun gehiagoz aurkituko dugu T. Urzainki eta J.M.Olaizolaren *La Navarra marítima* (1998) liburuaren 283 orrialdean. Hor agertzen denez, Nafarroari bere nortasun gutiestea izan da nagusi.

Casadevante, XVII mendearen lehen parteko jauregia, kale Nagusian kokatzen da. Gaur egun Pampinot izeneko ostatua dena. Isastik 1625ean idatzia eta 1850 era arte argitaratu gabeko Compendio historial de Guipúzcoa haren 465 orrialdean zioenez: «Tiene su familia y linaje antiguo en esta villa en la calle mayor, que en vascuence llamaron *Aurreco calea*, y en romance es lo mismo que casa devante». Izatekotan ere, nire ustez, Aurrekoetxea izan zitekean.

Etxebeste, XVI mendekoa, aditua dut lehenago Palencia deritzen zitziola eta gero General Muñoz bezala ezagutua izan dela, gaur egun, Hotel Obispo (Ipiztiku ostatua) Cristóbal Rojas y Sandoval zenaren monumentu aurrean kokatzen delako edo. Etxearen aipamena Karmelo Etxegaraik egiten du *Monumentos civiles de Guipúzcoa* (1921) liburuxkaren 11 orrialdean eta armarrarian irudien artean, 16an, argazkia azalduz. Etxebeste, jatorriz Zarauzko Urdeta auzokoa izan daiteke, Florentino Portuk 1975ean argitaratu zuen *Fuenterrabia. Notas Históricas y Curiosidades hasta 1969* liburuan bertako armarrariak aipatzea, 255

